



ESKOLAUMEEN UNITATEA



Zuen erosotasunerako eta haurtxoei arreta onena eman ahal izateko, gomendio batzuk eman nahi ditugu, ospitalean ezinbestekoak diren lasaitasuna eta isiltasuna gordetzen lagunduko digutenak.

Unitateak ondo funtzionatzeko zure laguntza behar dugu.
Eskerrik asko.

SARBIDEA



Eskolako haurren unitatera eguneko 24 orduetan sartu daiteke. Baliteke memento batzuetan gela utzi behar izatea, gerta daitezkeen arreta-beharrak atendi ahal izateko.

BISITAK



Egunez bi senide egon daitezke haurtxoarekin eta gauez, 21:00etatik 09:00etara, senide bat.

MEDIKUAREN BISITA



Egunero 09:00etatik 11:00etara, igandeak eta jai-egunak salbu. Medikuaen bisitaren ondoren senideei ematen zaie informazioa. Haurtxoa espezialitate batekoa bada (Kirurgia, Otorrinolaringologia, Traumatologia, etab.) bisita goizean zehar izango da, hitzordu zehatzik ez dagoela.

LAGUNTZA

PSIKOLOGIKOA



Nahi baduzu, ospitaleak badu psikologiako taldea zure zerbitzura.

GARBITASUNA



Gorputz-garbitasuna egunero egiten da, ohean edo bainuan erizainaren balorazioaren arabera.

OTORDUAK



- Gosaria: 09:00
- Bazkaria: 12:30
- Merienda: 16:30
- Afaria: 20:00

Bularreko haurtxoen kasuan, biberroiak haurtxoaren eskariaren arabera ematen dira eta Dietetikako Unitateak prestatzen ditu. Behar den materiala ospitaleak ematen du, medikuak kontrakoa agintzen duen kasuetan izan ezik.

GOMENDIOAK



- Senide zaintzaileak atera behar duenean gelatik pertsonalari esan egin behar dio.
- Gelako jesarlekuak 08:30ak baino lehen jaso behar dira.
- **Istripuak saihesteko, oheko edo sehaskako alboko babes-barrak igota eduki behar dira.**
- Armairu bat dago gauza pertsonalak uzteko.
- 24 orduetan erizain bat eta erizain laguntzaile bat egongo dira, behar duzunerako. Pertsonalari deitzeko txirrin bat dago; **gelan egon arreta iritsi bitartean.** 08:00etatik 15:00etara unitateko gainbegiralea egongo da.
- Haurrak zapatilak beharko ditu eta txupetea ere, erabiltzen badu.
- Laneko ziurtagiria behar baduzu, Arantzazu eraikineko sarrera nagusiko informazio-gunean emango dizute, NANA aurkeztuz gero.
- Pediatriako zerbitzuak badu gela berezi bat ordenagailuz eta jolasekin hornitua eta ikasgela bat (laugarren solairuko alde urdinean). Hara igo nahi izanez gero, eskatu baimena erizaintzako pertsonalari.
- Gelan telefonoa dago, 11:00etatik 20:00etara deiak hartzeko. Zenbakia telefonoan bertan dago idatzita.
- Higienea dela-eta, gela garbia eta txukuna eduki eta gelako atean idatzita dauden arauak errespetatu.
- Senda-agiria eskuratu orduko, libre utzi gela, al bait arinen.
- Ospitaleratutako haurrak ezin dira Unitatetik irten, medikuaren baimenik gabe.